

**Espedientearen kodea:** 2022ZZ020003

**Espedientearen gaia:** 2022an Oiartzunen arte sorkuntza- eta ekoizpen- prozesuak garatzen ari diren Oiartzungo artistei diru laguntzak banatzeko oinarriak onartzea.

**Titularra:** ANDER IRIARTE ALVAREZ

## **EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA**

**Maria Victoria Joaristi Olariaga, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:**

**ZIURTATZEN DUT:** Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022/07/26n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

### **“2022AN OIARTZUNEN ARTE SORKUNTZA- ETA EKOIZPEN- PROZESUAK GARATZEN ARI DIREN OIARTZUNGO ARTISTEI DIRU LAGUNTZEN BANAKETA ONARTZEA ETA ORDAINKETA EGITEA**

Kultura Batzordeak proposatuta “2022an Oiartzunen arte sorkuntza proiektuak garatzeko diru laguntzak banatzeko oinarriak” onartu zituen Udalak 2022/03/28an eta 6.000 € ko gastu-onarpena egin zen (A-459-2022) eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen apirilak 1etik maiatzak 31a arte.

Diru laguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 diru laguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2022-2024rako diru laguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

Kultur teknikariak egindako txostenaren arabera, epearen barruan 7 proiektu interesgarri aurkeztu dira arte sorkuntzarako. Aurreikusitako proiektuen eta beraien bolumenaren kopurua gainditu egin denez, onartutako oinarri hauen 4.2 artikularen baitan “baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du Udalak eskaera guztiak aztertu ondoren”.

Ondorioz, lehen proposamen bat luzatu da dirukopurura 6.000 €tik 10.000 €ra igotzeko. Bestalde, aurkezturiko proposamenak aztertu dira eta puntuazioa eman zaie honako irizpideak aintzat hartuta: kalitatea eta interesa, bertako eragilea izatea, herriko eragileen inplikazioa eta bideragarritasuna, akordioan jasoko den emaitzarekin.

Kultura batzordeak joan den uztailaren 20an emandako diktamenarekin adostasunean, eta eskaera guztiak behar bezala aztertu ondoren, honakoa erabaki da aho batez:

1.- Tokiko Gobernu Batzarrari 2022an Oiartzunen arte sorkuntza proiektuak garatzeko diru laguntzetan 10.000 € ko gastu onarpena egitea onartzea udal aurrekontuko 1 0801.481.334.0008 2022 (A-459-2022) eta 1 0801.481.334.0016 2022 (A-1176-2022) diru-atalen kontura.

2.- Tokiko Gobernu Batzarrari 2022an Oiartzunen arte sorkuntza proiektuak garatzeko diru laguntzak aurkeztutako eta onartutako 7 interesatuei banatzeko eta ordaintzeko proposamena onartzea honako xehetasunarekin:

ESKATZAILEA	EKINTZA	JASOTAKO PUNTUAK	ESKATUTAKOA	ESLEITUTAKOA
ALAIN MENDIZABAL	Poesia bilduma ilustratua + grabazioak	67	1500 €	1395,83 €
XABIER BELAUNZARAN	Diska grabatzea	61	2400 €	1270,83 €
XABI SALABERRIA (1545 ARGITALETXEA)	Mare liburua, poesia, filosofia saioak	72	1500 €	1500 €
MIROKUTANA KOOP. TX.	“Betizu buru” laburra	66	3000 €	1375 €
MIROKUTANA KOOP. TX.	“Europa” laburra	66	3000 €	1375 €
ARNAIZ ALLENDE	Atoz pekataria instalazioa erakusketa	60	1253 €	1250 €
KARMELE MITXELENA	Martzelina liburu distopikoa	88	2000	1833,33 €
GUZTIRA				10.000 €

3.- Oinarriek ezarri bezala, aurreko atalean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (%80ari dagokiona) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

4.- Interesatuei ebazpena jakinaraztea: aurkeztutako proiektuaren gastuak 2022ko azaroak 30a baino lehen justifikatu beharko dituzte udal erregistroan, eskaera-orria eta deialdiko 4., 5. eta 6. eranskinak betez.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)

EUSKAL HERRIA 



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUc4a86cc4-6033-4486-88a3-a53009ac4cf7**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022ZZ020003-Ebazpena TGB/Ebazpena TGB (ANDER IRIARTE ALVAREZ)